

ARGAZKI LEHIAKETA

2026 urteko udal egutegirako argazkiak

Lehiaketaren oinarriak:

Oñatiko Udaleko Euskara sailak 2026ko Udal Egutegirako argazki-lehiaketa antolatu du. Hona hemen oinarriak:

1. Xedea.

Oinarri hauen helburua da 2026ko udal egutegirako argazkiak hautatzeko lehiaketaren baldintzak arautzea.

2. Gaia. Oñatiko toponimia argazkitan

Herri baten nortasunari eusteko, garrantzitsua da arbasoek lagatako ondarea jasotzea eta hedatzea. Oñatik toponimia ondare handia du jasoa. Udalaren webguneko [mapa interaktiboan](#), adibidez, Oñatiko Udalerrian jasotako 2.855 leku-izen kontsulta daiteke, eta ondare hori ezagutu, ikusarazi eta erabilia izan dadin nahi dugu. Hala, udal egutegiaren bidez, toponimoak eta argazkiak elkarren ondoan jarritz, oñatiarrek izendatutako leku, paraje, iturri, erreka, baserri, tontor, baso, soro, etxeen izenei leku bat egingo diegu 2026 urteko egutegian.

3. Zer-nolako argazkiak

Oñatiarrek, historian zehar, elementu askori jarri diete izena. Horietako zenbait gaur egun ez dira oso erabiliak, ez dira ezagunak edo galtzeko arriskuan daude, eta bizi berri bat eman nahi diegu, argazkien bidez. Horregatik, oñatiarrek izendatutako lekuen, elementu geografikoen eta eraikuntzen irudiak nahi ditugu. Adibidez:

- Bidea, mugarria, belardia, soroa, basoa, koba..
- Iturburua, iturria, erreka, ibaia, urtegia...
- Etxea, Auzunea, baserria, jauregia, txabola, dorrea, ermita...
- Tontorra, mendia, lepoa, haitza...
- (...)

Hala, 2026 urteko egutegian, hilabete bakoitzaren orrian, irudiak eta toponimoak lotu egingo dira. Hau da, argazkiaren ondoan, irudian ikusten den lekuaren/elementuaren izena agertuko da.

4. Argazkiak hautatzeko irizpideak

Argazkiak aukeratzeko, kalitate artistikoaz gain, irizpide hauek hartuko dira kontuan:

- Toponimoaren berezitasuna:

Argazkian agertzen dena izendatzeko erabiltzen den izenaren garrantzia: toponimo ezaguna/ezezaguna den; toponimo ugaria/urria den; zaharra/berria den...

- Elementuen aniztasuna:

Egutegia osotasunean hartuta, elementu geografikoen artean aniztasuna agertzea: parajeak, eraikinak, tontorrak, iturburuak, bideak...

- Auzoak eta urtaroak:

Oñatiko auzo ezberdinetan eta urtaro guztietan egindako argazkiak izatea.

5. Parte hartzeko baldintzak:

— Oñatin erroldatutako edonork parte har dezake, adin mugarik gabe.

— Ezinbestekoa da argazkiak Oñatiko udalerrian ateratakoak izatea edo irudiaren kokalekua Oñati dela argi agertzea.

- Argazki zaharrak edo berriak izan daitezke, zuri beltzean nahiz koloretan.
- Argazkiak originalak izan beharko dute, aldeztu aurretik argitaratu gabeak edo beste lehiaketa batean saritu gabeak.
- Parte-hartzaile bakoitzak gehienez hiru argazki aurkeztu ahal izango ditu.
- Argazki etzanak (formatu apaiztua) hobetsiko dira. Irabazleek 300ppp tamainan bidali beharko dute saritutako argazkia. Argazki zaharren kasuan, paperezko originala aurkeztu ahalko dute.

6. Sariak

Jasotako argazkien artetik hamabi aukeratuko dira 2026 urteko egutegia ilustratzeko, argazki bat hilabeteko. Aukeratutako argazki bakoitzak 80 euroko saria izango du.

7. Argazkiak non eta nola aurkeztu.

Argazkiak aurkezteko azken eguna 2025eko urriaren 10a izango da. Lanak euskera@onati.eus helbide elektronikora bidali behar dira, edo HAZeko bulegoan aurkeztu.

Argazkiarekin batera, datu hauek eman behar dira:

- Izen-deiturak
- NANA
- Telefono-zenbakia
- Argazkian agertzen den toponimoa (izena) eta deskribapen laburra
- Argazkia zein hilabeteetan joango litzatekeen adierazi.

8. Epaimahaia

Epaimahaia udal ordezkari batek eta argazkigintzarekin, arte munduarekin edo komunikazio arloarekin lotura duten pertsonak osatuko dute. Epaimahaiaren erabakia apelaezina izango da.

9. Saritutako argazkien erabilera

- Saritutako argazkiek 2026ko Oñatiko egutegia osatuko dute. Oñatiko Udalak argazki irabazleak egutegia ilustratzeko erabili ahal izango ditu, eta, behar izanez gero, kopiatu edo egokitu ahal izango ditu, betiere argazki egilearen izena aitortuta.
- Parte hartzaileen erantzukizuna izango da hirugarrenen batek ez izatea aurkezten diren lanen gaineko eskubiderik eta irudi eskubideak direla-eta inolako erreklamaziorik ez aurkeztea.
- Argazkietan, lehenengo edo erdiko planoan, norbait azalduko balitz, pertsona horren baimen esplizitua aurkeztu beharko da, eta egileak izango du erantzukizuna edozein erreklamazioren aurrean.

Oharra:

- Argazkien kalitatea edo kopurua kontuan izanik, epaimahaiak erabaki dezake 12 argazki baino gutxiago hautatzea. Kasu horretan, udala arduratuko da egutegia osatzeko falta diren argazkiak egiteaz.
- Lehiaketaren oinarrietako edozein ataletan gerta daitezkeen zalantza edo desadostasunen aurrean, antolatzaileak erabakiko du.
- Lehiaketa honetan parte hartzearekin, baldintza hauek erabat onartutzat ematen dira.